

Maderas de Llodio Enpresa Batzordearen Oharra

Laudion, 2025eko irailaren 2an

Maderas de Llodio Enpresa Batzordeak kezka eta gaitzespen sakona adierazi nahi ditu, atzo Zuzendaritzak egindako komunikazioaren aurrean, zeinetan **enplegu kolektiboaren prozedura** abiarazteko asmoa komunikatu baitzuen inongo zehaztasunik gabe, baita beste neurri batzuk hartzeko asmoa, langileen egonkortasuna arriskuan jar dezaketenak.

Gertakari hau **oso larritzat** jotzen dugu, bereziki uztaileko azken asteetan hitzarmenaren negoziazio-prozesuan bete-betean geunden eta hainbat puntutan aurrera egiten ari ginenean. Hala ere, atzo, irailaren 1ean, Zuzendaritzak elkarrizketaren dinamika hautsi eta neurri zorrotz eta aldebakarraren aldeko apustua egin zuen, zuzenean langileon etorkizunaren aurka.

Gainera, komunikazio hau egiteko modua guztiz **onartezina** izan da: bilerarik aurrez deitu gabe, xehetasun handirik eman gabe eta plantan zeuden ordezkariak modu inprobisatuan helaraziz. Jokabide honek errespetua eta lan-harremanetan egon behar duen gutxieneko formaltasuna urratzen du, bereziki garrantzi handiko komunikazioei dagokienez, larritasuna kontuan hartuta.

Batzorde honek argi utzi nahi du: **ez dugu Maderas de Llodio enpresan kaleratzerik onartuko eta horrelako edozein neurriren aurka borrokatuko dugu**. Berehala exijitzen dugu enplegu kolektiboaren prozedura erretiratzea eta hitzarmenaren negoziazioak premiaz berriz hastea; bertan jorratu behar da plantillaren etorkizun laboralaren nondik norakoa. Gaur bertan helarazi diogu Zuzendaritzari, idatziz, neurri honen aurkako gure erantzun irmoa.

Gure konpromisoa irmoa da eta beti egongo gara lanpostu guztiak eta plantillaren eskubideak defendatzen.

Datozen egunetan **langileen batzar orokorra** deituko dugu, egoeraren berri emateko eta neurri honi erantzun kolektibo egokia artikulatzeko.

Maderas de Llodio-ko Enpresa Batzordea

